

## ELUR BUSTIA: AURKEZPENA

Nire fobiek eta filiek ez dute aurpeirik izaten, baina hitzez eta esakunez gainezka egoten dira maiz.

Orain dela urte batzuk aditu bati entzun nion filia eta fobia markatu batzuk edukitzea komenigarria ere badela, munduan ibiltzen lagundu dezaketela. Badakizue, bilatuz gero beti aurkitzen da zure usteak berresteko balio dezakeen esaldia.

Gorrotagarriak zaizkidan hitz eta esakune asko kalbinismo berriak ezarri ditu. Askoren ustetan dotrina honen sorreran neoliberalismoa dago; nik uste, ordea, ideia horiek bazter guztiak hartu dituztela: ezkerreko eta eskuineko alderdi politikoak, kirola, ETB-ko saio histeriko batzuk eta beste asko. *“Energia positiboa behar da”, “saia zaitetz erronkak jartzen eta gainditzen”, “ezagutu itzazu zure egiazko mugak”, “nahi duzuna izan zaitetzke”, “zeu zara zure etsairik handiena”...* Aholku kartsuen zerrenda luzea da, eta hitz horien funtsari darion inozokeria ez txikia. Areago, non eta nola esaten diren krudelkeria ere ez dabil urrun.

Oso goxoa izan behar du autolaguntzarako sortutako mantrak ekartzen duen loa. Tentaldirik izan ez baduzu, ordea, nazkak ere har zaitzake. Hala ere, ni, batez ere, harritu egiten naiz, ezin baitut ulertu zer dagoen halakoak botatzen dituztenen gogoan. Ez da xamurra jakitea non bizi izan diren, zer lagun dituzten, zer ikusten duten kalean dabilzanean, zer euskarri eskaintzen dien zirtzileria bilduma horrek eta nolatan ausartzen diren hala mintzatzeraz erori denaren aurrean. Benetan uste ote dute ez direla sekula behera etorriko?

Ni bezalako burges txiki bati batzuetan zaila bazaio ere, jakitun naiz erori diren horiek gure artean daudela. Orain dela ez hainbeste gu bezala edo antzera zebiltzan, amildegi ertzetik aparte samar edo tirriki-tarraka, estu antzean, baina tente.

*Elur bustia*-n erortzen ari den gizon baten ibilbide laburra dago. Marra mehar ikusezin baten paraleloan doan bide bat jarraitzen du. Ederki daki zer dagoen marra horren bestaldean, eta ez luke zeharkatu nahi. Gizon horren arazoa berehalakoa da, begien aurrean du etengabe eta bere obsesioa biharamuna da, jakinda, gainera, ez dagoela bakarrik orain bakarrik dabilen arren.

Irudi bat oinarri nuela eta galderaz kargaturik abiatu nintzen protagonistarekin batera. Beti bezala erantzunik gabe iritsi naiz bukaerara, beharbada galderaren helburua ez delako zein den gizaki horren arazoaren zergatia aurkitzea. Horrek erantzun erraza du oso.

Askoz ere nekezagoa da antzematea zer dabilen jiraka estuasunaren aurrean berehala erantzutera behartuta dagoenaren gogoan. Ez dago asmo handietarako eta kalkuluetarako ez astirik ez biderik. Otordu bat, dei bat, billete bat, logela bat... Dena salgai. Biharamuna dago, eta kito.

Hala bizi behar dutenen egunerokoa ikustean galdera batek jotzen nau: noiz arte eutsi ahal izango dio? Harritu egiten nau etengabeko ataketatik orbainez beterik atera eta jarraitzeko kemena duena ikusteak. "Hik ere egingo huke" esan izan didate batzuek horretaz jardun dugunean. Ni ez nago hain seguru. Ahulak gara eta hautsi egiten gara. Gutxiago al da ihes egiteko tentaldia duena edo errenditu dena?

*Elur bustia*-ko protagonistak helburua garbi duela ematen du, ordoki urruneko argipean zain dituen senideen artera bildu nahi duela, han izango duela babesa, han sosegu apur bat. Etxea. Herri eta zibilizazio askotan hitz horretan biltzen da gizaki abailduak behar duen kontsolamendu guztia. Eta hortik nik neure buruari jarri nion azken galdera: senideen eta jaioterriko adiskideek ematen dizkiguten atsedena eta sostengua ez al dira eragiten diguten zamaren eta pesalunbrearen neurri berekoak?

*Elur bustia*-ko gizonak ez du horretaz gogoeta egiteko tarterik. Sargori dago abiatu denean, haizeteak eta euriak jo dute gero, elurraren ezohikoa iragarpena ere ez dabil aparte. Gizonak aurrera egin behar du, etxe baten irudi lausotua helburu. Alferrikakoa litzateke derrotan pentsatzen hastea.

Pello Lizarralde, 2016ko ekainak 2